

# zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 3 PEZETA

## 10 URTE

Hamargarren urtea ospatzeko egin dugun zerbaitarekin zaude. Hamar urte. Beharbada ez da axio ikaragarria izan gure hau, baiña gu zerbait izan delakotan gaude. 1956ko udazkenean sortu zen JAKIN. Ez diogu aitatzat izenik ekarriko, irten den bakoitzean berriro sortua dirudien ezker. Izan ere, JAKIN-en bitzta ez da nagia izan. Indarrak, setak, bizi behararen legeak eutsia ta hogei aldiz sortu dela esango nizuke.

Hauxe litzake egokiena, JAKIN-en bitzta ez erestekotan: hogei aldiz sortua dela esatea.

Hamar urteotan zer egin duen? Ernetzea bera etzen, agian, gutxi; ez gutxiago bizitzea. Kultur aldizkariarako asmotan hasia dugu gure hau: «Gure euskera kultur loera eta kultur-ats guzi guzietan» trebetzeko. Lortu duen ala ez bestek irizpetuko du, merezi badu beñepein. Beñ baiño gehiagotan irabazi du makina bat gorespen. Eta ohore orain artekoan beintzat. Ez gerra alper lanean jardun hamar urte.

Lehenik, euskal apaiz eta prailleen elkartasuna irixi zuen JAKIN-ek. Egiteko batean bat. Hasieratik bereetik agiri zaizkigu jesuita, benediktin, pasionista eta frantziskotarren lankideen artean. Gerora, ezin aiantz ditzakegu Euskal Seminarioak, sakramentinoak, karmeldarrak... Azkenik, herri gizonak ere bildu zaizkigu lan ardurazko hau zuzen aurrera eramateko. Eta neska-txen izenak ere ez dira luzaroan faltako, Jainkoa lagun.

Eskubidez, JAKIN-en epaitzaille izan ditekuan Yon Etxaide-ren hitzerkin esateko, kultura euskeraz barrietzaren merezimendu ez kaxkara aipatuko dugu bigarren: «Euskeraz orainaldi honartarte ikutu ez ditugun jardun goitiarrak» erabili ditu JAKIN-ek. Eta ez beti gaizki, ez horixe!

Iñork aterako ez digun erabaki ta uste amorratua euki dugu beti aldikari honetan arkitu geranok: euskerak bizi egin behar duela, premlazkoa dela kultura europearra gure hizkuntzan sartzea, ta guk egitekoa dela hori, ez beste inork. Jomuga honen egia daukagu beti begien aurrean: euskal kultura.

Amesak ames, ba dugu gauzakto zerbait:

52 idazle  
111 lan  
9 ordena ezberdinetako izenak.

Hau da lehenengo hamar zenbakiek (kontuz, ez urteek) ematen ditugutena, 52 idazle horiek denak JAKIN-ek sortuak dituzte. Alegia, beren izena ta izana —euskal letretan— JAKIN-en agertu dituzte. Jakinlari hoetako batzuek euskal aldikariaren lankide jator dituzte gaur.

Aipu berezia zor zaio JAKIN-i, euskal aldikariaren artean, euskera idatzia errezagotzeko alegiñetan. Ekintza zailean abiatu zen JAKIN bere kultur asmokina. Ezerezean oinarriturik bezelatsu: batetik, kulturazko daukaguntxo ezagutzea ne-

keza zitzaigulako, eta bestetik, egitekoaren zati haundi bat zero berria zelako euskal literaturan. Beraz, bidea billatzea zen lehenengo zeregiña. Eta honetan ere gazteek egitea fixaro zitekeena baiño jatorrago jardun gera: azkatasunez, egia, baiña gogor. Noizpait, apika, gogorregi. Euskera garbiaren auzi betikoa jorratu on batekin garbitu zen gure artean.

Sendo leiatuz billatu dugu (ez noski erabat, honek ez baitu azkenik) bidea, edo Luis Mitxelena-  
k esango ligukenaz, guk mogimendua ibilliarekin probatu dugu.

Laugarren lekuan beste hau gogora dezakegu: alegia, JAKIN-ek ez duela basamortuan lan egin. Gaurko euskal letren mogimenduari bategiña dator, zintzo asko etorri, sarritan ondo kostata izan arren. JAKIN-ek gogoz onartzen du Euskaltzaindiaren zuzendaritza, batasunaren gerri beharrezkoa. Eta Batasuna erabakiri ere sakonetik lotua gelditu da, beharbada beste euskal aldikaririk ez bestean.

Azkenik, lau liburu eder argitaratu dira JAKIN-en ardurapean A. Villasante-ren «Jainkoa», A. Gandiagaren «Elorri», «Filosofaren Kondaira I», «Europa» ta beste zenbait izango dituzute ondotik. Gertutzen ari gera.

JAKIN-en goraberak hobeto ezagutzeko, ikusi EUSKERA, Bilbao 1963-1964, N. 336-371. Han aztertu nuen zeakiago JAKIN-en bitzta.

## JAKIN ERABAKI BATEN AURREAN

Ricardo Arregui

Aspaldi batean JAKIN'erako idatzi nuen artikulu batean ikusi nuen lehendabizikoz nere izena inprimaturik. Orregatik jakinlarria izan naizenez JAKIN'en amargarren urtean zenbait pentsamendu dartzkit nere baitara.

Ez dut uste beharrezkoa izango danik JAKIN euskal errealidadearen barruan izan duen inportantzia gogora erazitzeko ta aipatzeko, ezta ere une onetan dituzten korapiloak eta prolemak aiatzea, ori Jose Azurmendi'k berak egiten baidu. Neri iruditzen zait beste zerbait pentsatu beharra dagoela.

Ortarako ez dugu ahaztu behar urte askotan euskal kultura Erdiko Aroan bezela egon dela. Espikatu naiz. Erdiko Aroan apaizak eta prailleak izan ziran erromatarren eta grezitarren kultura gorde zutenak eta kultura salbatu zutenak. Euskalerrria'n, beste neurri batean baldin bada ere, orrelako zerbait gertatu dela ukatzerik ez dago. Apaizak eta prailleak izan dira erretzasun aundiarena izan dutenak euskeraren barryan lana egiteko ta Eleizaren itzalpean bakarrik indartu ahal izan da, gutxi bederik ere, euskal kultura. Ezin bada ukatu apaizak eta prailleak bentajan arkitu dirala. Gaur egunean ere Eleizaren itzaletik kanpo, agirian, ez dago ezer asko euskal kulturaren sororan. Au esatea beharrezkoa iruditu zait oraingo esango ditutenak behar bezela ikusteko.

Jose Azurmendi'k dio gaurkotatunaren bila dabilela JAKIN eta sakristi usia baztertu nahiean. JAKIN lehendabiziko maila pasa du, orain etapa berri baten aurrean aukera bat egin behar duela uste, erabaki bat artu.

JAKIN zertarako jao zen ikusirik eta bere asmoak zer ziran ikusirik nik uste dut iru posibilitade auen artean egin behar duela aukera:

1.—Gaur egunean JAKIN'en idazten duten nahiko laiko, baiñan ez dugu ahaztu behar aldikariaren zuzendaritza prailleen eskuetan daudela. Jose Azurmendi'k dio egin ditekila sakristi usarik gabeko teologi berri bat. Ni ere ortan nago ta ori uste dut JAKIN'ek duen posibilitade bat. Euskalerrria'k ainbeste apaiz eta aini jakintsuak izanik ez ditu euskaldun bezela teologiaren prolemak pentsatu. Ori izan ditekile posibilitade. Baiñan ba dakit JAKIN'ek ez duela bide au bakarra artuko ta ontan geldituko. Era guztietara pentsatu egin behar dela uste dut.

2.—JAKIN izan ditekile euskaldun katoliko pentsamenduen aldikaria ta gaurko orrelako zerbait dela esan behar. Ba dakit ez dela erabat profesionala, baiñan existenzialismoaren sororan egiñiak sarreara txiki batzuek alde batera utzirik ez dut uste gehiago egin danik. Au da behar ba da JAKIN'ek duen biderik atseingarriena.

3.—Jose Azurmendi'k dio JAKIN'ek herriarekin bizi nahi duela, herriaren prolemak bizi nahi baldin badugu beñepein, beste ideialogiko jendeekin itzegitea. Ori izan ditekile irugarren aukera, ideialogi guztietako, katoliko edo ez, jendeen arteko elkar izketarako aldikaria, Euskalerrriari buruz. Au da biderik zailena eta arantzaz jositako, baiñan benetako. Posible ote da? Era guztietara katolikoak ez luteke ahaztu behar bentajarekin jokatzeko dutela gaurko zirkunstantzietan.

Ez dut uste nere adiskide jakinlariak gaizki artuko dituztenik nik emen esandakoak. Behar bada galdetuko didate ea zergati ez dituedan gauz auk JAKIN'erako idatzi. Galdera orren erantzuna bere oiei bakarrik ematekoa da ta ez emen azaltzekoa.

## GEROARI BEGIRA

Errebista batek berak egiten du bere burua, eta JAKIN-ek horretan jarraitu behar luke, orain artekoak ukatu gabe. Batez ere gaurkotatun gehiagoren premia duela aitortu beharrean aurkitzen gera, nahiz eta hau izan bere betiko nahia. Gaurkotatun ez da gure berriak dituen prolema ta goibeheri aurrera bide billatzen saiatzea baizik.

Ez da hauxe sekula eginkizun erreza izan. Eta gure gaurrean gutziago. Egin beharrezkoa denez, halere, billatu egingu ditugu egoki diren bideak. Zai daukagu herria, gure zai, guztion zai. Ba dakigu ez gerala guztion arteko batzuek besterik, ez dezakegula mirari apartekorik egin. Baiña bai bitzitzeko miraria. Behar dugu, eta egingo dugu. Jainkoa daki nola.

Zerbaitetarako gaude munduan herri bezela, zerbait hau, agian, garbiagi agiri ez bazaigu ere... Jaiotzean aukerarik izan ez baguenen, bai bitzitzeko. Eta derrigorez kultura aukeratu beharrean gaude, herria ez da herri kulturarik gabe-ta. Gurea ez da joera itxua. Beharra da, bizi beharra, ez bizi nahi soilia. Orain bizi beharra. Ez gaude denporaren eskuetan, gure eskuetan daukagu denpora. Beaten artetik, ura bezala, gal ez dezagun, irmo elduko ditugu denporari—gureari, euskaldunari—gazte atzamarren eta beharrend indar guztietan. Ez al gera bakarrik egongo guztiona den alean honetan!

Oraina eskas bezain zabal datorkigu etorkizuna, saiatu ezker. Bizitzea ez da ez hiltze hutsa. Bizitzea sortzea da batez ere, ta horra JAKIN-ek sortu beharrezkoa: euskal kultura. Kultura, berriz, ez da berezko ta bere baitako ezer. Jendeari eta denporari lotua dago;

haiengan ermetzen da, hari begiritzen dio. Eta horri lotu behar galkizkiogu: gure jendeari, gure gaurri.

JAKIN-ena ez da gaurraipen bizitza izan, ez baitago garaipenik norberaren burua garaitu arte. Notiz irizitiko digu holakorik JAKIN-ek?... Ta zer inporta digu noizak? Bukararik gabeko eginkizuna baiño zoragarriagorik ez dal

Azken aldian Arantzazu-koegia biurtu zaigu JAKIN. Egia da herri gizonen lgunatasuna erakarri dugula. Aspaldian nahi horrekin ibilli gera, salatzen ziguten sakristia kutsua ezabatzeko asmoz. Bitartean, ordea, nun daude jesuita ikasleak, esate baterako? Bateko, apaizgai idazleak urritu zaizkigu, ta besteko sakristia usarik gabeko teologia egin ditekela ahaztu edo dugu, nunbait.

Eta bukatzeko, zuk duzu hitza, irakurle. JAKIN'ek, nahi duen euskal-kultura ez da posible zu gabe. Hasieran uste genuen zera, alegia, "JAKIN-en jomuga ez dela irakurlearentzat izatea bakarrik", lotsa pixka begiraten dugu orain. Amesak ziren. Eta gaur ameseko ez baiño gauzakto kultura billatzen dugu. Ba dakigu krisian dagoena ez dela euskera, krisia kontzientziaren larri astindua denez. Gu gaude, gu, ta ez euskera. Perogrullo-ren egia irudituko zaizu hau, ta zerbait adieraz dezaike halere. Guri beintzat, zuri galdetzeko ta erantzuteko premia erakutsi digu, elkar hizketa hau izango da gure kultura.

Zuk duzu hitza. Guk, gure aldetik, beste hau esan nahi genizuke: eskerririk asko, hamar urte hoengatik.

JOSE AZURMENDI

